

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasunak 500.000 euroko aurrekontua duten laguntzak deitu ditu 2015eko ikerketa-proiektuetarako

Diru-laguntzak eskatzeko epea iragan larunbatean hasi zen eta maiatzaren 18an amaituko da

Lunes, 20 de abril de 2015

Osasun Departamentuak 2014ko diziplina biomedikuetan ikerketa-proiektuak egiteko laguntzen deialdia argitaratu du [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) (NAOeko 73. zenbakia, apirilak 17) eta, horretarako, 500.000 euro erabiliko du, guztira. [Eskaera-epea](#) zabalik dago jadanik, eta maiatzaren 18an amaituko da.



Osasunak 500.000 euro erabiliko ditu ikerketa-proiektuetarako.

Laguntza horien helburua osasunean eragin handieneko eta Nafarroako osasun-sisteman oihartzun handieneko arloetako ikerketa sustatzea da, hainbat alorretako profesionalen eta ezagutza-eremuen arteko lankidetzara sustatuz. Proiektuak ikerketa klinikoaren esparruan garatu ahalko dira, osasun publiko eta osasun-zerbitzuen barnean, eta osasun nahiz prozesuen hobekuntzara bideratu beharko dira, bai eta ikerketa biomedikoko teknologietara ere.

Laguntza horiek sare publikoko osasun-zentroi atxikitako profesionalak eta Nafarroako unibertsitateek eskuratu ahalko dituzte, edo irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuei atxikitakoak; proiektuetan, gutxienez bi zentrok parte hartu beharko dute, haietako bat Foru Komunitatean izanik.

Ikerketa kliniko onenak "Ortiz de Landazuri Beka" jasoko du, eta osasun publiko eta osasun-zerbitzuei buruzko proiektu onenak "Mikel Larumbe Zazu Beka".

Emandako zenbatekoak ezingo du 30.000 euro gainditu proiektuko eta urtebeteko iraupena, eta honako hauek ordaintzeko erabiliko da: langile teknikoak kontratatuzko gastuak, proiektua garatzeko ezinbestekoa den material (inbentarioa egin daitekeena), material suntsikorra eta zerbitzu profesionalak (inkestak egitea, aholkularitzak...).

Laguntzak xede horretarako beste edozein laguntza edo diru-laguntzarekin bateragarriak izango dira, baldin eta finantzagarria den

zenbatekoa gainditzen ez badute.

2014an diruz lagundutako 14 proiektu

2014. urteari dagokion Osasun Zientzien ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdian, [14 proiektu](#) jaso zuten laguntza, eta haietatik 5 Nafarroako Unibertsitate Klinikoari zegozkion, 3 Nafarroako Ospitaleguneari, 2 NUPi, 2 Ikerketa Mediku Aplikaturako fundazioari, 1 Miguel Servet fundazioari eta 1 Nafarroako Unibertsitateari.

Guztira, kalitate zientifiko handiko 134 proiektu aurkeztu ziren eta, beraz, hasierako 500.000 euroko zuzkidurari beste 75.000 gehitzea beharrezkotzat jo zen, eta aukera hori deialdian jaso zen jadanik.